

Berazadi

Zeruko Argia, [1976].

Ez da gai erraza; baina iges-ezinekoa, ordea.

Batek giza-barrurik badu beintzat.

Indarkeria, ba dakigu berez azi gaiztoa da. Eta emakorra. Eta beste askoren antzera: frutu txarra ematen duen indarkeri zahar honek, azia berekin darama.

Artoak bezala.

Artaburuan lerrokatuta jaiotzen den artalea, elkar-batean frutua eta erein-alea da. Ereiten den arto hau aundia eta sendoa bada, sendoak eta aundiak diren artaleak emango ditu; eta, lengoz bestera, berriz: ereiten den artoa alferra edo artatxikia eta gaitzak jo-erraza bada, ezin du ereiten ari denak bestelakorik espero. Ez dakit zergatik den, baina izakerak txarrera errazago jotzen du, onera baino; esan nahi dut, onak ona izaten irauteko, ardura zaila eskatzen duela, eta txarrak txarkerian jarraitzeko, utzikeri erraza besterik ez.

Zerbait osatzeak eta zatitzeak erakusten duen grina bera lekuko.

Aingeru Berazadi inolako zuribide gabeko bortxakeri otz-ilun batean il dute.

Guda batean ere ba dira ageriko lege batzuk eta hoietatik argien ikusten dena: arerioa nor den berezi behar da lehen, eta honen lege beraz arerioa neurtu.

Gutxienez.

Beste aldetik, bortxakeri basati honek, garai larri hontan ahaztu ezin ditugun ulerpide batzuk salatzen ditu.

Gaurko gazte hoiek garagandik datoz; ezin dugu arrotzak direla esan. Ikus dezagun, gero, sendi-gorabideak noraino eramaten gaituen: bai izen-abizenez, bai sinismenez, bai moral eta politikazko ekintzaz eta baita aolku esanetara jotzen badugu ere.

Zerk galdu du, ba, azi ona, sen ona, joka-bide onbidetsua eta esan-ona izandu den azi-fruitu hau.

Giroak, apika.

Izan dugu Euskalerrian azia lurpean erretzen asteko aztirik gabe erre duen izotza ikaragarria franko; kixkaltzen duen eguzki-sua, erruz; burni-langaz itxitako bide zuzen-garbi asko; zezen-plazara besterik bideratzen ez duen irten-ezineko laberinto hontan tiroz auzi garbi edo batere gabe egindako eriotzak, milaka; zintzilikako, zutikako, exeritako edo etzan-botatako gorputz eta animan neke-makurreko tortura zori ikaragarrietan jarritako asko eta asko.

Ezin konta ala.

Hoiek denak ere egiak izan, horra!

Eta asi onenak ere galtzeko ainekoak izan, horra!

Ez ditugu Aingeru Berazadi-ren eriotz-bide eta zergatikakoak inolatan ere zuritu nahi. Ez barruz eta ez biotzez, eta ezta buruz ere: erriaren auzia alabera lohitzten eta zailtzen bait du honek.

Baina gaur malko-garraxi ofizialetan ari direnak ez dute honetarako eskubiderik: buka-ezineko iturburu ikaragarri eta madarikatu hoietatik bertatik ari bait dira?

Hoiien jokoan ezin gaitzke eror.

Hoiiek ezin ditugu inolatan eta santa-sekulan zuritu.

Min larri honek jota gauden hontan, behar genduke gure erriak behar eta merezi duanaz oar-kezkatu eta mindu; eta nolabait aginpidean dauden hoiiek gure erriaren deia behar luteke entzun eta ulertu: indarkeri-iturri hau ez da sasi legez jantzitako indarkeri berriz; ez da lur hontan funtsezko justizirik egiten ez den bitartean gorrotorik ilko.

Eta hemen ilobiratu behar dena, justiziaz eortzi behar dena, gorrotoa da.